

Bigarrenez, hemen naukazue nire memoria pittin bat astintzen. Hausturatik hausturara. Aurrekariak aintzat hartuta, bigarren esperientzia izanik, esango nizueke lehen aldian baina lasaiago, seguruago ikusi naizela. Bestalde, konfiantzaz beterik nindoan, aurrenekoaren arrakasta sentsazioaren ondorioz. Betekada honek ordea, gerora, kaltea besterik ez dit ekarri, batez ere hasierako bi egunetan. Usteak erdi ustel. Lehen bi egunetatik bi irakaspn eta ondorio nabarmendu nahi ditut:

- “Hizkuntza muga izan arren, komunikazioa bermatu daiteke” esan genien hasieratik. Hau ez da bete. Komunikazio sinple bat bermatu daiteke baina konplexutasunean sartzen garenean, eztabaidak, argudioak... komunikazio osoa ezin daiteke bermatu. Ezin daiteke bermatu guk bizitu dugun egoera kontuan hartuta noski. Jarrera kontu bat da azkenean, komunikatu nahi izatearena. Kasu honetan, frantsesez besterik egiten ez zutenek, hizkuntza mugatzat hartu eta komunikazioan ez dute sakondu nahi izan. Gure aldetik, hizkuntzak jarritako mugak eta komunikatu nahi ez horrek ezintasuna sorrarazi digu. Nahi izan honekin lotu nahiko nuke bigarren ondorioa.

- Nahi izatea edo ez, jarrera kontua izaki, pertsona horiek gustura egotearekin du zerikusia. Nabarmendu nahi dut, lehen egunetik, kanpalekura iritsi bezain pronto bi gazte frantsesak etxera bueltatzeko nahia adierazi zigutela. Harrituta? Erabat. Aurretik egin beharreko lanak, gazteak zertara eta nora doazen azaltzearena alegia, gaizki egin zirenaren seinale baita. Horrelako jarrera bati buelta ematea zaila da. Aurreko nire egonaldian ez bezala, honetan sukaldeko lanak amaitu gabe edota egin gabe zeuden. Hortik atera ondorioak.

Honekin beraz, lehen bi egunak joan zitzaizkigun. Ez dizuet aipatu baina hasiera batean 5 gazte baziren ere, 4 agertu ziren hitzordura. Bigarren egunean bi etxera bueltan joan baziren, bi gazterekin egonaldia jarraitzea edo ez izan genuen eztabaidagai. Bi hezitzaile eta bi gazte. Aurrera azkenik.

Bigarren egunean, bi gaztek etxerakoa hartuta, arratserako, talde giroa nabarmen goxatu zen eta hausturak egonaldi berri bat hasi. Ordura arteko nire ezinegon eta frustrazio denak desagertu ziren, hizkuntzaren psikosia barne. Afalordua momentu berezia izan zela esango nuke, hiru orduz kanpalekutik aparte egon ondoren, alde egin nahi zuten bi gazteak Ikerrengana hurbiltzeko, bueltan, bidean bildutako onddo batzuekin egindako arrozak eta afalorduko istorioek eta barreek talde giroa aldatu zuten eta elkar ezagutza areagotu. Ezinbestekoa. Bertan hurrengo egunerako plana adostu genuen. Satsara goaz.

Satsara ibilaldia. Nik beti defendatuko ditut ibilaldiak. Are gehiago bidean onddoak biltzeko aukera baldin baduzu. Aupa Jon Onddo!! Ibilaldian nekatzeak badu bere saria. Kasu honetan Satsako txabola. Teilatupean goxo lo egiteko aukera. Azaroan eskertzekoa, nahiz eta eguraldiarekin izugarritzko zortea izan dugun. Ibilaldia eta gero, arazo logistikoak tarteko, ongi bazkaltzeko aukera izan genuen. Txabolan instalatuta, gaua segituan zetorkigun gainera. Afari berezia. Haragi errea. Hurrengo eguneko beharrak egiteko gasolina. Goiz oheratu, eta goiz jaiki, eguzkiarekin batera. Satsako erlojua.

Egunik produktiboena, ostiralekoa. Txabolako teilatua pintatu, txabola ingurua txukundu eta atariko sarrera egin. Denak lanean eskurik esku. Goiz goizetik bazkalordura arte. Hastea kostatu zitzaien arren, gerora lan txukuna egin zuten bi gazteek, egin genuen denok. Emaidza argazkietan dago.

Gauza gehiagorik ez egonaldi honetaz. Gure artean bizitutakoak Jaizkibelet gorde ditu bere memorian. Gu laurok ordea, bizipen horiek erabiliko ditugu.

Agian ez dugu berriz elkar ikusiko, baina elkar ikusten badugu, bizitutakoaz hitz egingo dugu, pozik. Hori baita Hausturak. Esperientzia positibo bat, balore sendoak sustatzen dituena.

Hausturak 2010

Imanol Ikardo

*Hausturak-eko hezitzailea*